



U D A L  
HAUTESKUNDEAK

2023

*gehigarri berezia*



**Alkatetzara aurkeztu diren  
alderdien hautes-programak**

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa
2. Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
3. Ainhoa Arrozpide Landa
4. Xabat Beloki Seguroloa
5. Iratxe Begiristain Otegi
6. Xabier Aranburu Leiva

7. Joxe Mari Lizaso Azkonobieta
8. Oskar Santamaria Pikabea
9. Maialen Iñarra Arregi
10. Lur Etxeberria Gurrutxaga
11. Alazne Arruti Bengoetxea
12. Martin Leoz Leoz

13. Josune Iparragirre Tolaretxipi
14. Moraysys Silva Rodriguez
15. Gema Sueskun Urritza
16. Amets Aburruza Seguroloa

# ehbildu



# Maitte duzun Usurbil

BOZKATU EHBILDU!

HERRI PROGRAMA > [usurbilehbildu.home.blog](http://usurbilehbildu.home.blog)



# EGINGO DUGU.

# Aldaketak hauteslekuetan

Aurrez bozkatzen ez duenak maia-tzaren 28ko bozketa egunean bertan parte hartu ahalko du hauteskundeotan. Hauteslekuei dagokionez, aldaketa nabarmen bakarra dago; azken hauteskundeak 2020ko uztailean egin ziren, Covid-19ak eragindako osasun krisialdi betean. Prebentzio neurriak tarteko, Udarregi ikastolako hiru mahaiak Oiardo kiroldegira lekuz aldatu zituzten. Garai zail hura igarota, mahaiok berriz ikastolan kokatuko dituzte.



Igandean, goizeko 9:00etan irekiko dituzte hauteslekuak eta arratsaldeko 20:00etan itxiko dituzte.

## Aginagan, Eskolako psikomotrizitate gelan

Aginagan, eskolako psikomotrizitate gelan mantenduko da hauteslekua. Gainerakoan, aurreko deialdietako lekuetan bozkatu ahalko da. Norbera non dagoen erroldatua, horren arabera, gune batean edo bestean bozkatzea egokituko zaio.

## Zubietako Herri Batzarrerako bozka, Kaxkapen

Zerrenda honi, bestalde, Zubietako Herri Batzar berria osatzeko maia-tzaren 28an izango den bozketa eguneko mahaiak erantsi behar zaio. Orain arte Alamandegira joan behar izaten zuten botoa ematera. Oraingoan, Kaxkapen kokatuko dute horretarako mahaiak.

# Maiatzaren 28ko hauteslekuaren zerrenda

Udalerrria	Barrutia	Saila	Azpisaila	Mahaia	Letrak	Hauteslekua	Hauteslekuaren helbidea
USURBIL	01	001		A	A I	UDARREGI IKASTOLA, ERDIKO ARETOA	GERNIKA IBILBIDEA 11
USURBIL	01	001		B	J Z	UDARREGI IKASTOLA, ERDIKO ARETOA	GERNIKA IBILBIDEA 11
USURBIL	01	002	01	A	A Z	SANTUENEA KULTUR ELKARTEAREN EGOITZA	SANTU-ENEA AUZOAZ 12 (URDAIAGA)
USURBIL	01	002	02	B	A Z	AGINAGAKO HERRI IKASTETXEKO PSIKOMOTRIZITATE GELA	ERRIBERAKO KALEA 7 (AGINAGA)
USURBIL	01	003	01	A	A I	HAUR ESKOLAKO JANGELA	KALEZAR AUZOAZ S/N (KALEZAR)
USURBIL	01	003	01	B	J Z	HAUR ESKOLAKO JANGELA	KALEZAR AUZOAZ S/N (KALEZAR)
USURBIL	01	003	02	C	A Z	LANBIDE-ESKOLA	ZUBIETA AUZOAZ 9 (ZUBIETA)
USURBIL	01	004		U	A Z	UDARREGI IKASTOLAKO ERDIKO ARETOA	GERNIKA IBILBIDEA 11
DONOSTIA	06	012	02	B	A Z	ZUBIETAKO ESKOLA	LEARRITZA 52 (ZUBIETA)

# Lau usurbildar Aulki Zuriak-en zerrendetan

Duela lau urteko udal hauteskundeetan, Aulki Zuriak alderdiak hautes-zerrenda bat aurkeztu zuen Usurbilen. Luismari Ormaetxea Santsiñena izan zen zerrendaburua.

Aulki Zuriak taldearen "helburua ordezkatuak sentitzen ez direnen ordezkari izatea da", Ormaetxeak duela lau urte eskaini zigun elkarrizketan azaldu zuen moduan. Eta zinegotzi gisa hautatua izango balitz, "gingo dudan lehen protesta ekimena zinegotzi kargua ez hartzea izango da. Ondoren, oposizio arduratsua egitea izango dugu lehentasun". Ez zuen zinegotzi kargua hartzeko adina bozka lortu.

## Luismari Ormaetxea, Gasteizko alkategai

Legealdi berriari begira, Aulki Zuriak-ek ez du Usurbilgo udal hauteskundeetan parte hartuko. Luismari Ormaetxea Santsiñena, honakoan, Gasteizko udal zerrendaburu gisa ageri da. Gogoan izango duzue, 2003-2007 legealdian, Usurbilgo alkate izan zen Ormaetxea. Eusko Alkartasunako kide zen garai hartan.

Foru Aldundiko lehiara ere postulatu da Usurbilgo alkate ohia. Oriako hauteskunde-barrutiko zerrendan doa, Andoni Pikabea Lamuedrarekin batera.

Donostialdea hauteskunde-barrutian berriz, Antonio Picabea Sarasola aginagatarra topatu dugu, Aulki Zuriak-en zerrendako 16. postuan. Eta Bidasoakoan, Aitor Picabea Lamuedra, 10. tokian.



## EHBildu: “Maite dugun Usurbil, elkarrekin eraikitzeko proposamena da geurea”



“Herri jasangarriagoa eta bizigarriagoa izan nahi dugu”, dio Usurbilgo EHBilduren hautes-zerrendak. “Ingurumenarekin harmonian biziko dena, eta ingurumenaren zaintza lehenetsiko duena”.

### **Zeintzuk izango dira zuen hautes-programaren ildo nagusiak?**

**Agurtzane Solaberrieta:** Itzelak dira XXI. mendeko gizarte honek aurrean dituen erronkak. Hamarraldi erabakigarrian gaude gizateriaren historiari dagokionez, eta aurreikuspenen arabera, honako joera hauek larriagotu egingo dira: krisi energetikoa, migrazioen areagotzea, populazioaren zahartzea, gizarte dualizazioa, globalizazio digitala edota landa eremuaren despopulazioa. Horregatik, datorren munduaz jabetzeko, inportantea da begirada altxatzea eta geure buruak garai historiko honi aurre egiteko prestatzea. Horretan ari gara Usurbil,

eta komunitategintzan sakonduz, erronka horiei aurre egiteko 90 proposamen biltzen dituen gure herri programak. **Usurbil duinagoa, kohesionatuagoa eta bizigarriagoa eraikitzen jarraitzeko bidea marraztu dugu. Maite dugun Usurbil, elkarrekin eraikitzeko proposamena da geurea.**

**Usurbil justuagoa, berdinzaleagoa eta bateratuagoa izateko politikak indartzera goaz.** Neoliberalismo basatiaren ondorioz, prezioen garestitzeak ez dirudi mugarik duenik, eta bizitzaren pobretzea eta desberdintasun sozialak neurrigabe area-

gotzen ari dira. Usurbil berdinzalea eta haustura sozialik gabekoa ortzimugan, ezinbestekoa da pertsona guztiek bizitza duin eta justuago bat garatzeko oinarritzko beharrianak bermatuta izatea. Norabide horretan ondutako politika publikoak indartzera goaz. Honatx ildo honetan garatuko ditugun proiektu nagusiak:

**Herri jasangarriagoa eta bizigarriagoa** izan nahi dugu, ingurumenarekin harmonian biziko dena, eta ingurumenaren zaintza lehenetsiko duena. Erronka ekosoziala gure agendaren lehen lerroan dugu, eta ekimen ugari jaso ditugu larrialdi kli-

# “Ezinbestekoa da pertsona guztiek bizitza duin eta justuago bat garatzeko oinarritzko beharrianak bermatuta izatea”

matikoari aurre egin eta trantsizio energetikoaren bidea egiten jarraitzeko.

## **Kultura, euskara eta herri-identitatea, tokiko ekonomiaren motor.**

Ekonomia lokalari bultzada eman nahi diogu “650 Usurbil Bizi” herri proiektuaren bidez. Turismo eredu berritzailea oinarri hartuta, plan eta eskaintza oso bat ari gara garatzen, gure herri identitatean, baloreetan, ondarean eta martxan ditugun proiektu eraldatzaileetan euskarrizta. Datorren legegaldia giltzarria izango da plan honen lur hartzean eta garapenean.

**Elkar zaintzen duen herria.** Politika neoliberal pribatizatzaileek, biztanleriaren zahartzeak eta pandemiak zaintza krisia areagotu dute. Usurbilen duela bizpahiru urtetik hona lanean ari gara zaintza ekosistema publiko-komunitarioa eraikitzeke, pertsona ardatz duen arreta eredu erdigunean jarrita. Zaintza behar duten pertsona guztien eta zaintzaileen bizimodu duinak bermatzea da helburua, eta egitasmo kualitatibo eta aitzindariak martxan jartzera goaz.

**Gobernantza demokratikoan sakondu.** Zer egin nahi den bezain inportantea da nola egin. Horregatik, erronka horiei erantzuteko, ezinbestekoa da udalerrriaren etorkizuna komunitatean eraikitzea, eta izaera ezberdineko eragileen arteko elkarlanerako guneak eratzea. Gobernantza eredu hori gorpuztera goaz.

**Euskalherrigintza:** Etorkizuneko Euskal Herria independente, bizi, euskaldun eta berdinzalea zerumu-

gan, behetik gora, Usurbildik ere ari gara gure nazioa eraikitzen, euskalherringintzan eta euskaratik ari gara, eraikuntza komunitarioaren indarrez.

## **Udal zerrenda**

### **EH Bildu**

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa.
2. Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.
3. Ainhoa Arrozpide Landa.
4. Xabat Beloki Segurola.
5. Iratxe Begiristain Otegi.
6. Xabier Aranburu Leiva.
7. Jose Maria Lizaso Azconobieta.
8. Oskar Santamaria Picabea.
9. Maialen Iñarra Arregi.
10. Lur Etxeberria Gurrutxaga.
11. Alazne Arruti Bengoetxea.
12. Jose Martin Leoz Leoz.
13. Miren Josune Iparragirre Tolaretxipi.

### **Ordezkoak:**

1. Moraysys Silva Rodriguez.
2. Gema Sueskun Urritza.
3. Amets Aburruza Segurola.

## **Foru hauteskundeetarako zerrenda**

### **EH Bildu**

1. Maddalen Iriarte Okiñena.
2. Luix Barinagarrementeria Olaizola.
3. Eneritz Otamendi Goñi.
4. Joxe Mari Carrere Zabala.
5. Nora Garcia Zaldúa.
6. Jon Martin Tejeria.
7. Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.
8. Beñat Larrañaga Urdampilleta.
9. Uxue Loinaz Urruzola.
10. Joanes Garcia Mezquita.
11. Garazi Castaño Fariñas.
12. Kattalin Artola Vazquez.
13. Ione Olatziregi Mendiorotz.
14. Diego Barrado Sanchez.
15. Itsaso Lekuona Legorburu.
16. Unai Ribera Martinez.
17. Maria Irigoien Matxiarena.

### **Ordezkoak:**

1. Ainhoa Erkizia Escolano.
2. Haizea Añorga Irigoyen.
3. Itziar Artola Bedia.



## EAJ-PNV: “Usurbildarrentzat aukera berriak emateko konpromiso osoa daukagu”

**Zeintzuk izango dira zuen hautes-programaren ildo nagusiak?**

**Xabier Otxoa:** Aurrerantzean bidelagun izango duzuen gizon-emakume taldea usurbildar guztien ongizatearen eta bizi kalitatearen alde lan egiteko helburuarekin burutu dugu.

Hartzen den erabaki orok, gutxienez, ondorio bat dauka eta hau da unea erabaki berriak hartzeko. Taldean, usurbildarrentzat aukera berriak emateko konpromiso osoa daukagu, seriotasunez, anbizioz, eta ilusioz herriari, etorkizunera begira, ziurtasunak emateko erantzukizuna hartzen dugu.

Usurbil bizitzeko herri eder, eroso eta lasaia da, oso ongi bizi gara, baina zergatik uko egin bistakoa den hobekuntza bati? Hobetzeko marjina oso handia da oraindik eta gure taldea prest dago erronka horri aurre egiteko.

### 1- Aritzetatik sarrera-irteera berria Usurbilentzat.

Usurbilek egun daukan sarrera-irteera onartu ezina da, Usurbileko bizilagunentzat bide irisgarri eta seguruago bat behar da, mugikortasuna erraztuko duena. Horregatik, herriguneko iparraldetik, Kalezarretik, Aritzetako zerbitzugune eremura bide berri baten eraikuntza landuko dugu.

### 2- N-634 errepideko sarrerak hobetu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko sail ezberdinekin lan egingo dugu, egun N-634 errepidean dauden Usurbileko sarrerei behin betiko soluzioa emateko.

### 3- Lasarte-Oria eta Usurbil lotuko dituen bidegorria.

Atallu industrialdera eta Lasarte-Oriarako bidegorria errealitate bihurtzeko ardura hartzen dugu. Horretarako Foru Aldundiarekin batera lanketak hasiko ditugu egun daitezkeen arazo teknikoei konponbide bat bilatzeko.



Usurbilgo EAJ-PNVren hautes-zerrendako kideek “seriotasunez, anbizioz, eta ilusioz herriari, etorkizunera begira, ziurtasunak emateko erantzukizuna hartzen dugu”.

### 4- Zabor bilketa sistema aldatzea.

Egun dagoen atez ateko zabor bilketa sistema kendu eta txartelezko edukiontzi bidezko zabor bilketa jarriko dugu. Ekonomikoki eta ingurumen ikuspuntutik jasangarriagoa eta garbiagoa da, birziklatze-tasa antzekoak mantenduz. Gainera, herritarrok zaborra nahi dutenean botatzeko askatasuna izango dugu.

### 5- Zahartze eta zaintza politika aktiboak.

Usurbildarrak etxean ezin badira egon, etxean bezala sentiarazteko, bakarrik ez daudela sentitzeko, aktibo mantentzeko politikak bultzatuko ditugu. Adineko pertsonak aktibo mantenduko ditugu, ez bakarrik fisikoki, mentalki ere bai.

### 6- Etxealdia eta Txaramunto elkartzeko errepidea.

Gertu dauden Etxealdia eta Txaramuntoko auzoak elkartzeko dituen errepide berri bat egitea proposatzen dugu, bi auzoen arteko lotura baimenduz.

### 7- Eskubaloirako kantxa estali

### berri bat.

Eskubaloian jokatzeko kantxa estali berri bat, egun kirol etxe ondoan dagoen kantxaren zati bat aprobetxatuta. Modu honetan, hainbat taldek batera entrenatu eta jokatu ahal izango dute.

### 8- Gimnasio aretoan berrikuntza integrala.

Egungo gimnasioaren beharrak aztertu eta horren baitan diseinua egokitu, baita dauden makina motak ere, makina ergonomikoak eta seguruagoak jarritz, hau da, berrikuntza integral bat.

### 9- Zubietako bidea zabaldu, segurtasuna bermatzeko.

Zubietako bidea oso erabilia da auzotarrengandik baina baita usurbildarrengandik ere aisialdirako. Ingurune eder honetaz modu eroso eta seguru batean disfrutatu ahal izateko errepidea zabaltzea bultzatuko dugu.

### 10- Lurzoru urbanizagarriak handitu.

Kalezar, Zubieta, Santuenea, San Esteban, Txokoalde, Aginaga eta Kaxkoan lurzoru urbanizagarriak handituko ditugu herriko bizitza eta herriko zer-

# “Usurbil bizitzeko herri eder, eroso eta lasaia da. Hobetzeko marjina oso handia da oraindik eta gure taldea prest dago erronka horri aurre egiteko”

bitzuak bermatzeko. Etorkizun batean gazteek eta ondorengo seme-alabek Usurbilen bizitzeko aukera eduki dezaten etxebizitza gehiago eraikitzeke lurzorua behar dira.

## 11- Ur bizien kanala sustatuko dugu Ori ibaian.

Oria ibaian ur bizien kanala sustatuko dugu Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Proiektu hau estrategikoa da eta bi instituzio hauek egindako apustuari gure babesa emango diogu, Usurbilek dituen baliabideak aprobetxatu eta herritarrentzako onurak ekarriko dituelako.

## 12- Udal tramiteak erraztu, jarduera ekonomikoa indartzeko.

Jarduera ekonomikorako, merkataritzarako, eta orohar, herritarrak udal administrazioarekin egin beharreko tramiteak erraztu eta azkartuko ditugu. Dauden lokal hutsei irtenbidea biltzeko Eusko Jaurlaritzarekin batera legeak berraztertzeke lan egingo dugu.

## 13- Lehen sektorearen sustapenerako ekimenak bultzatu.

Lehen sektorearen sustapen eta dinamizazio ekimenak burutuko ditugu. Digitalizazio eta salerosketa modu berriak ezartzen lagunduko dugu bezeroarengana hobeto iristeko. Dauden teknologia berrien erabilera bultzatuko dugu egungo merkaturak lehiakorraz izaten jarraitu ahal izateko.

## 14- Izaera teknologikoko jarduerak Luzuriaga parean.

Luzuriaga parean, N-634 eta GI-11 errepideen arteko gunean industria jarduerak sustatuko ditugu, izaera teknologikoa eta balio erantsiko aukerak erakarri. Kokapen egokia eta aukera handiko eremua da, Usurbilen aurrekontuetan diru sarrera igoera nabarmena ekarriko duena.

## 15- Ekintzailatza sustatu.

Ekintzailatza sustatzeko aholkularitza eskainiko dugu, Usurbileko balio erantsia bertan geratu dadin.

## 16- Aparkaleku gehiago.

Nabarmena da herrigunean dagoen aparkaleku beharra. Beraz, dauden beharrak aztertu eta aparkaleku gehiago jarriko ditugu, betiere oinezkoen irisgarritasuna bermatuz.

## 17- Auzoen eta herrigunearen autobus zerbitzu osagarria.

Herri barneko garraio zerbitzu osagarria ezartzea, batez ere hirigunean egiten diren kirol-, hezkuntza-, kultura- eta osasun-jarduerekin lotuta.

## 18- Aginaga eta Txokoalde auzoak biziberritzeko bertako pertsonekin azterlana.

Tokiko errealitatetik (pertsonak eta enpresak) hazkunde autoktono eta jasangarriko aukerak sortzeko azterlana egingo dugu, dimentsio anitzeko ikuspegi batetik.

## 19- Drogak. Kale hezitzaileak.

Substantziadun mendekotasuna nahiz substantzia gabeko adikzioa prebenitzeko programa garatuko dugu. Programa horren barruan, besteak beste, kale hezitzailearen figura jarriko dugu, figura hau 18 urte baino gazteagoak diren gazteei zuzendua egongo da.

## 20- 18-25 urte bitarteko gazteentzat garraio publikorako dirulaguntzak.

18-25 urte bitarteko gazteentzat garraio publikorako dirulaguntzak eman eta zerbitzu hauen frekuentzia handitzeko Foru Aldundiarekin lan egin. Neurri honekin usurbildarrak ikasten dabilen bitartean Usurbilen bizitzen jarraitzeke erraztasunak eman nahi ditugu.

## Udal zerrenda

### EAJ-PNV

1. Xabier Otxoa Muñoz.
2. Ivan Iriondo Axpe.
3. Josune Urkola Larrarte.
4. Andoni Atxega San Sebastian.
5. Mirari Azurmendi Sorazu.
6. Agurtzane Egibar Artola.
7. Carlos Perez Fraisoli.
8. Mari Jose Ibargoyen Lizarazu.
9. Alejandra Arrieta Varela.
10. Juan Mari Zubeldia Arrieta.
11. Julian Beraetxe Aranburu.
12. Lourdes Jauregiberri Goenaga.
13. Jose Mari Zubiria Eguzkiza.

### Ordezkoak:

Jose Mari Olaizola Orbegozo.

## Foru hauteskundeetarako zerrenda

### EAJ-PNV

1. Xabier Ezeizabarrena Saenz.
2. Saioa Bandres Moneo.
3. Ianko Gamboa Sanz.
4. Aitziber San Roman Abete.
5. Markel Aranburu Bartau.
6. Nerea Landaluze Gorostiaga.
7. Xabier Otxoa Muñoz.
8. David Rosco Jorge.
9. Zorione Etxezarraga Ortuondo.
10. Eñaut Aranbarri Esnaola.
11. Aitana Aguirre Loyarte.
12. Amaia Vaquero Montero.
13. Mikel Etxebeste Iraeta.
14. Mertxe Garmendia Bereziartu.
15. Manex Aldalur Beldarrain.
16. Itziar Gastamintza Arantzadi.
17. Ainhoa Alkain Aiestaran.

### Ordezkoak:

1. Jokin Garate Pujol.
2. Iñaki Goiria Etxebarria.
3. Koro Garmendia Galbete.



## PSE-EE: "Alderdi guztiakin egingo ditugu itunak, bai eta beste erakunde batzuekin ere"

### Zeintzuk izango dira zuen hautes-programaren ildo nagusiak?

Petra Romero: Jarraituko dugu Usurbilgo herritarren behar garrantzitsuenen arreta emateko helburua betetzen eta, horretarako, politikak egin eta alderdi guztiakin egingo ditugu itunak, bai eta beste erakunde batzuekin ere.

Egungo ziurgabetasun ekonomikoaren garai hauetan, tokiko eta eskualdeko enplegu-programen aldeko apustua egingo dugu, enplegu duina defendatuko dutenena, eta tokiko saltokietan erosteko kontzientziazio- eta pizgarri-kanpainak egingo ditugu.

Hobariak eta zerga-salbuespenak onetsiko ditugu, familia kalteberenei laguntzeko. Zentzu horretan, gure ustez garrantzitsua da adinekoei, emakumei eta gazteei zuzendutako zerbitzu-katalogo bat prestatzea, beharrezkoak duten pertsona guztiei kudeaketa errazteko.

Zerbitzu publikoei eta hiri-mantentzeari dagokienez, herrigunetik urrutien dauden eremuen berronartzea sustatuko dugu, besteak beste, Santuenearen eta erdigunearen arteko tarteara, eta, horretarako, irisgarritasuna hobetzea sustatuko dugu.

Bide-garbitasuna hobetzeko lanean jarraitu behar da, eta hiri-aldizariak areagotzeko inbertitzen, hala nola banku edo zaborrontzi gehiago jartzeko.

Garrantzitsua da kirol-instalazioen erabilera areagotzea, eta, horretarako, Oiardoko bigarren pista ezartzea eta Santueneko plazako pista berritzea proposatzen dugu.

Jakina da sozialistok erkidego energetikoak sortzea sustatzen dugula. Erkidego horiek energia berriztagarriak eta autokontsumoa sustatzera



Petra Romero PSE-EEren alkategaiak adierazi digunez, "udal hauteskunde hauetan, sozialistentzat garrantzitsua pertsonak eta konpromisoak dira".

bideratzen dira, eta udal-erakinetan egingo litateke; eraikin horiek udalak lagako lituzke, Usurbilgo familiek sorkuntza eta kontsumo elektrikoaren eredu jasangarri horretara jartzeko bidea eduki ahal izateko.

Bereziki, gaur egun bizi dugun garai honetan, gure etxe eta saltokietan eragina duten kontingentzia energetikorako neurriak ekarri dituen egoera energetiko zaila kontuan hartuta, sustatzen ari garen eredu energetikoak familiei lagunduko die aurtengo neguan elektrizitatearen prezioen gorabeherak arintzen.

Energiaren demokratizazioan eta erregai fosilekiko mendekotasun gutxiagoko kultura eraginkorrako, bidezkoago eta jasangarriago batean aurrera egiteak eremuan bizi diren pertsonen bizi-kalitate hobea ekarriko du.

Badakigu Usurbilen kooperatiba

energetikoak ari direla lanean, baina bi eredu horiek erabat bateragarriak dira.

Udal-hauteskunde hauetan, sozialistentzat garrantzitsua pertsonak eta konpromisoak dira.

Usurbil herri zoragarria da; Oriabaian zehar zabaltzen da. Bertan, ohitura eta modernitatea eskutik doaz, eta bertako biztanleen sormena eta ekintzailtza aintzatesten dira.

Sozialiston iritziz, orain da herriari kohesio handiagoa emateko unea; horretarako, herriko auzoetatik abiatu behar dugu, eta haietan guztietan auzotarrek bizitza osoa egin ahal izateko bide eman behar dugu.

Hori guztia da alkategai aurkezteko eskaintzen dudana, eta hura lortzeko, pertsona-talde bat dut, eta talde horrek dena emango du hala izan dadin.



## Udal zerrenda

### PSE-EE PSOE

1. Petra Romero Pozo.
2. Monica Cacereño Orduñez.
3. Juana Urtizberea Lecuona.
4. Juan Francisco Valbuena Garcia.
5. Jesus Oficialdegui Ruiz.
6. Irma Jauregui Atondo.
7. Miguel Angel Castaño Alberdi.
8. Angel Morales Rojo.
9. Maria Luisa Algote Gomara.
10. E. F. Cordoba Corcostegui.
11. Mercedes Jimeno Badiola.
12. Fabian Nieto Usatorres.
13. M. Esperanza Eguiguren Romero.

## Foru hauteskundeetarako zerrenda

### PSE-EE PSOE

1. Susana Garcia Chueca.
2. Jesus Maria Zaballos De Llanos.
3. Arritxu Marañon Basarte.
4. Iñaki Mirena Mugica Flores.
5. Edurne Mendi Gabarain.
6. Ricardo Crespo Rubio.
7. Maria Jesus Egido Moreno.
8. David De Miguel Les.
9. Nuria Fernandez Castrillo.
10. Francisco Jose Suarez Perez.
11. Margot Liliana Daza Perez.
12. Mikel De Aralar Sardon Delgado.
13. Maria Carmen Gomez Perales.
14. Miguel Maestro Insausti.
15. Maite Sanchez Garcia.
16. Maria Begoña Palos Barbero.
17. Julio Fidel Juan Astudillo Rodrigo.

Ordezkoak:  
Hautagairik gabe.

# Foru hauteskundeetan zazpi zerrenda aurkeztu dira



Gipuzkoako Batzar Nagusiak ere berrituko dira maiatzaren 28ko hauteskundeetan.

Usurbilgo alkatea eta udal zinegotziak hautatzeaz gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietako ordezkari politikoak ere bozkatu ahal izango dira maiatzaren 28ko hauteskundeetan. Usurbil Donostialdea izeneko hauteskunde-batzordean kokatzen da, Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria eta Urrietarekin batera. Foru hauteskundeen kasuan, zazpi dira aurkeztu diren zerrendak: EH Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP alderdiekin batera, Elkarrekin Podemos+Ezker Anitza+Berdeak Equo+Alianza Verde, Aulki Zuriak eta Stop. Azken hiru proposamenen zerrendak dituzue ondoko hauek:

### AULKI ZURIAK ESERLEKUAH HUTSIK UZTEKO

1. Daniel Lizarralde Aguirre.
2. Amaia Larrea Loran\*.
3. Jairo Del Olmo Jiménez\*.
4. Maria Yolanda Fernandez Calero\*.
5. Francisco Javier Mendizabal Migliaccio\*.
6. Saioa Rodriguez Elgorriaga\*.
7. Andoni Garcia López\*.
8. Samantha Garcia López\*.
9. Cesar Rueda Lizarralde\*.
10. Adriana Martinez de Lizarduy Ayala\*.
11. Luis Garcia Molina.
12. Elvira Candelaria Garcia Vidales\*.
13. Maria de las Mercedes del Coro Aguirre De la Fuente\*.
14. Jose Antonio Diez Agesta\*.
15. Eva Pelaz Duran\*.
16. Antonio Picabea Sarasola\*.
17. Maria Nieves Uresberueta\*.

### STOP

1. Maria Assumpta Zubiarrain Suescun\*.
2. Karmele Otegi Aranburu\*.
3. Susana Ponce Manso\*.
4. Juan Jose Mahave Capellan.
5. Guillermo Prado Garcia-Vaquero.
6. Maria Dolores Fernandez Fernandez\*.
7. Maria Teresa Lopez Peña\*.
8. Susana Beatriz Basavilvaso Paggi\*.
9. Mikel Gotzon Rincon Sorozabal.
10. Exabier Uriarte Amuriza.
11. Maria Eugenia Solores Clemente\*.
12. Maria Lourdes Villagran Teresa\*.
13. Miren Jaione Crespo Emerit\*.
14. Telmo Aizea Lopez de Munain Solar.
15. Rogelio Carlos Gonzalez Medrano.
16. Magdalena Hernanz Cerezo\*.
17. Xabier Garbizu Isasa.

### ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA/IU, BERDEAK EQUO, ALIANZA VERDE.

1. María Victoria Eizaguirre Ballesteros.
2. Jose Carlos Garcia-Rodrigo Ametztoy.
3. Arantza Gonzalez García.
4. Raquel Rodríguez Lopez.
5. Jose María Iparraguirre Balda.
6. Javier Ezquerecocha Pajares.
7. Blanca Rosa Cases Gutierrez.
8. Hugo Martin-Santos García.
9. Jose Eugenio Rojo Pol.
10. Maier King Lara.
11. Marta Ezquerecocha Díez.
12. David Ares Rodríguez.
13. Maria Milagros Lurburu Larburu Aguirre.
14. David Oviden Cuello.
15. María Nieves Solanas Echeppure.
16. Gonzalo García Chasco.
17. Tania Cortes Erazo.

\*Independentea.



## PP: "Udal bulego bat jarriko dugu martxan, 'Next Generation' diru-funtsen eskaerak edota bestelako funtsak tramitatzeko"

**Zeintzuk izango dira PPren hautes-programaren ildo nagusiak?**

**Enplegua eta garapen ekonomiko-soziala:**

1. Komertzio txikia eta gertukoa sustatu eta babestu (kooperatibak, azokak, merkatuak...).
2. Usurbilgo nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea babestu (kalitate ziurtagiriak...).
3. Artisautza komertzioari laguntzak.
4. Autoenpleguari eta herri mailako lan-merkatuari laguntzak.
5. Turismo jasagarria enpleguaren, errestaurazioaren eta gertuko beste jardueren hobekuntzarako: identitate propio baten garapena ostalaritza sektorean, udalekuen eskaintza baserrietan, naturguneetan aisialdi eta kirol jardueren sustapena (ibaian, mendi-ibilaldiak...), 'Nomada Digitalak' hartuko dituen azpiegiturak sortzeko higiezin birgaitzea, turismo ornitologikoa (gabiraiak) sustatzea, miradore eta ibilbide sare bat garatzea.

**Etorkizun jasagarriago baterako azpiegiturak eta ekipamenduak**

1. Etxebizitza sozialen garapena eta sustapena.
2. Gazteentzako egoitzen inplementazioa.
3. Jarduera ekonomikoak bultzatzeko zonaldeen garapena.
4. Aparkalekuen kopurua handitu, batez ere guneko komertzialetan.
5. Usurbilgo herri-gune guztien arteko komunikazioak hobetu.
6. Errepide bidezko sarbideak eta urrutien dauden gunetarako bideak hobetzea (asfaltatzea, 'auzo-taxiak' garraio publiko iristen ez den kasuetan, diruz lagundutako bidaiekin).
7. Beste herriekiko komunikazioa hobetu (Zarautz,...).



Beatriz De Silva Olanar PP alderdiko alkategaiaren esanetan, "komertzio txikia eta gertukoa babestu behar da".

8. Telekomunikazioak hobetu (Internetarako sarbidea ziurtatu, baita urrutien dauden zonaldeetan ere).
9. Kirol instalakuntzen hobekuntza edota sorkuntza (rugby-a, judoa, atletismoa...).
10. Udal bulego bat martxan jarri, 'Next Generation' diru-funtsen eskaerak edota herriz gaindiko bestelako funtsak tramitatzeko, negozio berriak sortu eta jada martxan diren negozioen kasuan jarduera berriak garatu ahal ditzaten.

**Ondare historiko-artistikoa**

1. Usurbilgo ondare historikoa birgaitu eta balioan jarri.
2. Baserri, etxebizitza eta bestelako ondare-ondasunak birgaitu, erabilera berriak ahalbidetzeko.
3. Ondare hidraulikoaren kontrola eta babesa.

### Udal zerrenda

PP

1. Beatriz De Silva Olanar.
2. Roberto Sanz Orozco.
3. Alejandro Fernandez Berjano.
4. Elvira Agüero Fernandez.
5. Maria Lourdes Arranz Vazquez.
6. Alberto Jimenez Morales.
7. David Gazquez Fernandez.
8. Antonia Viñas Picazo.
9. Carlos Martinez Tomas.
10. Yolanda Larren Baños.
11. Isabel Harillo Ortiz.
12. Maria Jesus Acosta Marin.
13. Jose Antonio Monago Terraza.

### Foru hauteskundeetarako zerrenda

PP

1. Mikel Lezama Zubeldia.
2. Jorge Mota Iglesias.
3. Mikel Perez Mayor.
4. Nadala Maso Alvarez.
5. Vanessa Velez De Pablo.
6. Maria Garrapiz Rivas.
7. Iñigo Martinez Elosegui.
8. Jose Luis Herrador Gutierrez.
9. Amparo De Orbe Pinies.
10. Elvira Pascual Izquierdo.
11. Maria Eugenia Quevedo Otaegui.
12. Guillermo Sanchez-Berra Quintana.
13. Manuel Palacio De Ugarte.
14. Miriam Lago Irigoyen.
15. Maria Manrique Mendia.
16. Encarnacion Aramendia Alonso.
17. Borja Corominas Fisas.

Ordezkoak:

1. Manuel Salcedo Falcon.
2. Ines Baroja Horrillo.

## Hautagai Usurbildik kanpo edo kanpotik Usurbilen

Hitzordu berezia izango da ostegun honetakoa, maiatzaren 25ekoa. Bereak egin duen 2019-23 legealdiko azken osoko bilkura egingo dute udaletxean. Nabarmentzeko moduko bi berezitasun izango ditu saio honek; batetik, azken asteotan berritzen aritu diren udalbatza aretoan egingo dute. Bestetik, estreinaldi hau zinegotzi bat baino gehiagoren agurreko osoko bilkura izango da.

Egungo hiru udal taldeek (EHBildu, EAJ, PSE) ordezkariak duten 13 kide dituen udalbatzaren osara bere horretan mantenduko balitz hauteskundeon ostean, zinegotzi baten baino gehiagoren azken osoko bilkura izango da aste honetakoa.

**EHBilduren** kasuan, egungo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesa berriz ere alkategai gisa aurkeztu da dakizenez, Ainhoa Arrozpide Landa ere berriz aurkeztu da deialdi honetara, zerrendako hirugarren postuan da eta zortzigarrenean Oskar Santamaria Pikabea. Lur Etxeberria Gurrutxa-



Udaletxeak eta Gipuzkoako batzar nagusiak hautatuko dira maiatzaren 28an.

gak, Beñat Larrañaga Urdampilletak, Jose Mari Iribar Zapirainek, Luken Arkarazo Silvak eta Itziar Basterrika Unanuek ziur udal ordezkari izateari utziko diote. Etxeberria soilik ageri da maiatzaren 28ko hautagaien zerrendan baina hamargarren postuan.

**EAJ-PNVri** dagokionez, egun Josune Urkola Larrartek, Mirari Azurmendi Sorazuk, Carlos Perez Fraisolik eta Andoni Atxega San Sebastianek ordezkatzeko dute. Maiatzaren 28ko jeltzaleen hautagaien zerrendak

berrikuntzak dakartza, kide berriak lehen bi postuetan: Xabier Otxoa Muñoz alkategaia eta Iban Iriondo Axpe, sortzez aretxabaletarra eta eibartarra, hurrenez hurren. Haien atzetik, egungo bozeramaile Josune Urkola Larrarte eta Andoni Atxega San Sebastian udal ordezkaria. Segidan, bosgarren, Mirari Azurmendi Sorazu. Perez Fraisoli, aldiz, zazpigarren postuan.

**PSE-EEko** bozeramaile Patxi Suarezek ere ostegun honetakoa izango du bere azken osoko bilkura. Astigarragako udal hauteskundeetara aurkeztu da alderdi bereko alkategai gisa. Bere ordezkari, Petra Romero Pozo izango da sozialisten zerrendaburua datozen hauteskundeotan. Suarez bide bera egin zuen PSE-ko zinegotzi Ricardo Crespo herrikideak ere, 2011-15 legealdian Usurbilgo zinegotzi izan ostean. Hernaniko Udaleko alkategai gisa aurkeztu izan da geroztik, baita datorren maiatzaren 28ko deialdian ere.

## Herrikideak foru hauteskundeetan

Badira baita, Usurbildik kanpo, Gipuzkoako foru hauteskundeetako zerrendetan aurkitu ditugun herrikide gehiago. EHBilduren Donostialdeko zerrendan egungo zinegotzi Beñat Larrañaga Urdampilleta, zortzigarren postuan.

Hernaniko Udalerako PSE-EEren alkategai Ricardo Crespo Rubio seigarren baita eskualde honetako alderdi horren zerrendan eta Patxi Suarez egungo zinegotzia hamargarren postuan.

EAJ-PNVren zerrendan estreinakoz udal hauteskundeetara alkategai gisa aurkeztu den Xabier Otxoa Muñoz zazpigarren postuan da. Udal hauteskundeetarako zerrenda jeltzaleen bigarren doan Ivan Iriondo Axpe Deba-Urola eskualdeko zerrendan aurkeztu da, hamargarren postuan.



Jon Harreguy Arze Zerain Burujabe zerrendaren lehen postuan ageri da.

Urrunago joango gara, Goierriko herri txiki eta eder bateraino. Zerainen, EHBildurekin batera Zerain Burujabe aurkeztu da bertako udal hauteskundeetara. Sortzez usurbildarra den Jon Harreguy Arze izango da zerrenda horretako alkategaia.

### Aurpegi ezagunak

Herrira itzulita, badira nabarmentzeko moduko bitxikeriak udal hautes-

kundeetako zerrendetan. Dakizenez, lerrootan aipatu ditugun hiru alderdi aurkeztu dira deialdi honetara; EHBildu, EAJ eta PSE. Baita PP ere. Popularren zerrendako azken postuan, hamahirugarren postuan aurpegi oso ezagun bat dago; Jose Antonio Monago Terraza. Egungo PP-ko senataria da Madrilen, Extremadurako presidentea izan zen 2011-15 legealdian.

PSE-ren zerrendan alkategai gisa Petra Romero Pozo aurkeztu da, Andoingo udal ordezkari ohia, egungo Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Rafaela Romeroren ahizpa da. Rafaelaren alaba Maria Esperanza Eguiguren Romero izango da PSE-ko Usurbilgo udal hauteskundeetako zerrendako hamahirugarren kidea.



*Aurrera, batera!*  
**Usurbil**



**ej**  
**PNV**